

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jon Zubieta Irauen

*Ibarrangelu,
Bizkaia
(1921-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Jon Zubieta aita
Frantziskotarra Merru auzoan
jaio zen, bere gurasoen auzo
berean. Aita Ameriketara
beharrean joan zenean,
amagaz batera Arboliz auzora
joan ziren Ibinaga auzora joan
aurretik. 6 neba-arreba izan
ziren, horietako 3 fraideak.
Umetan Ibaetako eskolara
joan zen 11 urtegar
Arantzazura (Oñati) joan arte.
8 urtegar joan zen lehen aldiz
bertara anaia bisitatzera, eta
gero, 1932. urtean, 3 urteko
seminarioko batxilergoa
ikastera bueltatu zen. Handik
irten eta hainbat tokitan egon
zen: urte bi Foruan, Zarauzko
nobiziotzan, Oliten 3 urtez
filosofia ikasten, Arantzazun 4
urtez teologia ikasten,
Gasteizen apaiztu eta
Bermeon 5 urtez eta Foruan
beste 6 urtez fraide egon zen.
Azkenik 1961. urtean,
Arantzazura bueltatu arte eta
bertan egon da ordudanik,
Arantzazuko inguru
ederretan. Busturialdeko eta
inguruetako hainbat herri eta
auzotan misioetan aritu zen
eta oso ondo ezagutu zuen
zonalde hori. Gerra sasoiari,
Ibarrangeluko jueza zen bere
aita preso hartu zuten, eta
Ibinagatik bertatik bizi izan
zuen Gernikako erasoak.
Elantxobeko elizako aldare
nagusia Arantzazutik eroan
zuen bere aitita karreteroak
gurdian, bost eguneko
bidaian. Bermeoko orfeoiko
sortzailea eta lehen
zuzendaria ere izan zen
besteak beste; musikari
trebea da Jon, eta
Arantzazuko "Schola
cantorum"eko zuzendaria eta
organista ere izan zen.
Herritik kanpo igarotako
urteek bere hizkeran eragina
izan dute eta ez du bertako
berbaera; izan ere,
gaztelaniaz eta latinez burutu
zuen fraidetzarako ia bide
guztia eta Oliten beste fraide

Zintak

IBG-007

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Elortza, Kepa - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-28
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

IBG-008

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Elortza, Kepa - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-28
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

IBG-009

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa - Elortza, Kepa - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-28
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com